

## ***EUSKALTEL-EN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA ETA EEBSren AURKEZPENA***

*Zamudio, 2002-III-08*

*Pello Telleria,  
eragile teknikaria*

Martxoaren 8an sinatu zen, Zamudioko Teknologia Gunean, Euskaltel-en egoitzan, *Hitzarmen* hau. Ekitaldiak atal hauek izan zituen:

- Lehenik, Jose Antonio Ardanza Euskaltel-eko buruak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak *Hitzarmena* sinatu zuten.
- Ondoren, Jose Antonio Ardanzak, Jean Haritschelharrek eta Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiko kudeatzaileak Hitzarmenari buruzko azalpenak eman zituzten.
- Gero, Alberto Agirreazaldegi UZEIko kudeatzaileak, 1987tik gaur arte UZEIk egin duen EEBSren (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoaren) nondik-norakoak azaldu zituen.
- Azkenik, Internet-en bidez egin ahal izango diren kontsultei buruzko azalpen teknikoak eman zituzten UZEIko Miriam Urkiak eta Joxe Ramon Zubimendik JAGONETen arduradunak; lehenak, XX. mendeko euskararen corpus estatistikoaz, eta bigarrenak JAGONET zerbitzuaz.

Mahaiburuan hauek izan ziren, ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Jean Haritschelhar, Jose Antonio Ardanza, Alberto Agirreazaldegi eta Alberto García Erauskin Euskaltel-eko zuzendari nagusi eta kontseilaria. Ekitaldian, Euskaltzainditik, Iñaki Kareaga informatikaria, Amaia Okariz kazetaria eta Pello Telleria eragile teknikaria ere izan ziren, eta UZEItik Elena Zubeltzu informatikaria.

### **Nola kontsultatu interneten EEBS eta JAGONET**

Lehendik datorren JAGONET zerbitzurako sarbidea hau da: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net) > argibide eskariak > JAGONET.

EEBSren (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoaren) interneteko izena hau da: *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa*. Bi modutara sar daiteke copus hori kontsultatzera:

- [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net) > produktuak eta > zerbitzuak > corpusak > XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa.
- [www.euskaracorpora.net](http://www.euskaracorpora.net) (zuzenean).

Iazko iraileko osoko bilkuran UZEIk euskaltzain osoei aurkeztu zien EEBSko datu-basea, hiritar guztien eskuera dago, beraz, martxoaren 8tik. Corpus honetan 4.658.036 hitz daude, eta 101.585 lema desberdin. Corpus hori, XX. mendean kaleratu ziren 6.351 argitalpenetatik lagin estatistikoa hartuz egin da.

## LANKIDETZA HITZARMENA: *Euskaltel-Euskaltzaindia*

*Bilbon, 2002-III-8*

### **BILDURIK**

Alde batetik, José Antonio Ardanza jauna, adinez nagusia, NAN 14823596-G duena, *Euskaltel* Fundazioaren izenean eta hura ordezkatzuz, IFK G-95070421, helbidea: 101 Eraikina, Parke Teknologikoa, Zamudio (Bizkaia) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen erregistroan F-87 erregistro-zenbakia duena.

Bestetik, Jean Haritschelhar jauna, adinez nagusia, NAN MU89083 duena, Euskaltzaindiaren izenean eta hura ordezkatzuz, helbidea Plaza Barria 15, Bilbon (Bizkaia) duena.

### **ADIERAZI DUTE**

**I.** Euskaltel Fundazioak honako helburuak ditu: ikerketa, azterketa eta garapen teknologikorako jarduerak sustatzea, herritar guztiak komunikazioaren eta informazioaren gizarte globalean parte har dezaten aukerak garatzea, gizarteak aurrera egitea eta bertan kultur prestakuntza zabaltzea.

**II.** Babestua EUSKALTZAINDIA dela, besteak beste, JAGONET egitasmoa eta XX.mendeko euskararen corpus estatistikoa garatzen diharduena.

**III.** Euskaltelek goian adierazitako egitasmo horiek babestu nahi dituela, eta beraz, bi alderdiek Lankidetzaz Hitzarmen hau sinatuko dutela, ondoko baldintza hauen arabera:

### **BALDINTZAK**

#### **I. Helburua**

Akordio honen indarrez, Euskaltel Fundazioak JAGONET egitasmoaren eta XX.mendeko euskararen corpus estatistikoaren babesle jardungo du.

## II. Aldeen konpromisoak

Euskaltel Fundazioak, bi dira hartuko dituen konpromisoak:

- JAGONET egitasmoaren babesle izatea eta horretarako 12.000 €ko diru-ekarpena egitea.
- XX. Mendeko euskararen corpus estatistikoak beharrezko duen ostatazte aurreratua erabat doan ematea (30.000 €).

Bestalde, Euskaltzaindiak honako konpromisoak hartzen ditu:

- JAGONET egitasmoari dagokionez, beronen WEB-gunean (zerbitzu honen hasierako orrialdean, galde-erantzunen datu basean eta galdelekuan) EUSKALTEL FUNDAZIOAREN logotipoa txertatzea.
- XX. Mendeko euskararen corpus estatistikoari dagokionez, beronen WEB-gunean EUSKALTEL FUNDAZIOAREN logotipoa txertatzea (corpues horren hasierako orrialdean, nola erabili, kontsulta arrunta eta kontsulta aurreratuan).

Babestuko den jardueraren Txostena eta dagokion faktura jaso eta handik 90 egunera ordainduko du Euskaltel Fundazioak diru-kopuru hori.

Babestutako jardueran Euskaltel Fundazioaren logotipoa dagozkion ezauzgarri korporatiboen arabera ez erabiltzeak lankidetzaz hitzarmena berehala deuseztatzea ekar dezake.

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, Euskaltelek babesturiko bi egitasmo horietan babesle gehiagoren izenak txertatu ahal izango ditu Euskaltzaindiak, baina ez Euskaltelen konkurrentziakorik.

Kontratu honi loturiko informazio oro eta kontratuaren garapenean sortzen dena konfidentzial bezala tratatuko dute bi alderdiek.

## III. Ez-betetzea

Akordio honen indarrez Babestuak hartu dituen obligazioen erabateko edo zatizko ez-betetzerik gertatzen bada, Euskaltel Fundazioak bere esku dauka diru-kopururik ez ematea edo komenigarria iruditzen zaion neurrian ematea, Babestuak obligazioa betetzen duen neurriaren arabera. Obligazio hori bete izana aurreko baldintzan azaldu den bezala kreditatuko da.


## IV. Iraupena

Hitzarmen honek sinatu eta 2003ko martxoaren 8ra arteko izango du eragina, eta bi alderdiek adostuta luzatu ahal izango da.

## V. Izaera

Kontratu honek merkataritza-izaera du, eta berak dauzkan klausulen arabera gauzatuko da. Klausuletan aurreikusita ez dauden alderdietan manuzkoak izango dira Merkataritza-Kodea, 1998ko azaroaren 11ko Publizitatearen Lege Orokorra eta beste lege berezi batzuk, eta merkataritza-ohiturak.

Eta euren adostasuna adierazteko, bi alderdiek honako Babes-Akordioa sinatzen dute ale bitan eta eragin bakarrarekin, buruan adierazitako lekuan eta datan.



Euskalzaintzaburua  
Jean Haritschelhar



Euskaltel Fundazioko Presidentea  
Jose Antonio Ardanza



## CONVENIO DE COOPERACION *Euskaltel-Euskaltzaindia*

*Bilbao, 08-III-2002*

### REUNIDOS

Por una parte, D. José Antonio Ardanza, mayor de edad, con DNI nº 14823596-G, en nombre y representación de la Fundación Euskaltel, con CIF nº G-95070421, domiciliada en Zamudio (Bizkaia), Parque Tecnológico, Edificio 101, y registrada con el número F-87 en el Registro de Fundaciones de la Comunidad Autónoma Vasca.

Por otra, D. Jean Haritschelhar, mayor de edad, con DNI nº MU 89083, en nombre y representación de Euskaltzaindia, con domicilio en Plaza Nueva 15, Bilbao (Bizkaia).

### MANIFIESTAN

**I.** Que los objetivos de la Fundación Euskaltel son la promoción de actividades dirigidas a la investigación, el estudio y el desarrollo tecnológicos, el desarrollo de oportunidades para la participación de todos los ciudadanos en la sociedad global de la comunicación y la información, el progreso social y la extensión en la sociedad de la formación cultural.

**II.** Que la institución patrocinada es EUSKALTZAINDIA, la cual está desarrollando, entre otros, el proyecto JAGONET y el primer corpus estadístico del euskara del siglo XX.

**III.** Que Euskaltel desea patrocinar dichos proyectos y en consecuencia las dos partes firman el presente convenio de colaboración con arreglo a las siguientes cláusulas:

### CLÁUSULAS

#### **I. Objeto**

En virtud de este acuerdo la Fundación Euskaltel actuará como patrocinadora del proyecto JAGONET y del corpus estadístico del euskara del siglo XX.

## II. Compromisos de las partes

Son dos los compromisos que la Fundación Euskatel va a adquirir:

- Patrocinar el proyecto JAGONET para lo cual realizará una aportación económica de 12.000 €.
- Proporcionar de manera totalmente gratuita el hosting avanzado necesario para el corpus estadístico del euskara del siglo XX.

Por su parte, Euskaltzaindia asume los siguientes compromisos:

- Respecto al proyecto JAGONET, insertar el logotipo de la FUNDACIÓN EUSKALTEL en el sitio WEB de dicho proyecto (en la página inicial de este servicio, en la base de datos de consultas y en el Consultorio).
- Respecto al corpus estadístico del euskara del siglo XX, insertar el logotipo de la FUNDACIÓN EUSKALTEL en el sitio WEB del corpus estadístico del euskara del siglo XX (en la página inicial de dicho corpus, y en las secciones, cómo usar, consulta ordinaria y consulta avanzada).

La Fundación Euskaltel abonará el importe mencionado en un plazo de 90 días a partir de la recepción del Informe de la actividad y la factura correspondiente.

La omisión del uso del logotipo de la Fundación Euskaltel de acuerdo con los distintivos corporativos que le corresponden puede ser causa de resolución inmediata del convenio de cooperación.

Mientras esté convenio de cooperación esté en vigor, Euskaltzaindia podrá insertar los nombres de otros patrocinadores en esos dos proyectos, siempre y cuando no sean de la competencia de Euskaltel.

Las dos partes tratarán confidencialmente cualquier información relativa a este contrato, incluida la que se produzca durante el desarrollo del contrato.

## III. Incumplimiento

En caso de incumplimiento total o parcial de las obligaciones asumidas por la Patrocinada en virtud de este acuerdo, la Fundación Euskaltel tendrá derecho a no entregar el mencionado importe económico o a entregarlo en la medida que juzgue conveniente, según el grado de cumplimiento de la obligación de la Patrocinada. El cumplimiento de dicha obligación se acreditará del modo indicado en la cláusula anterior.




#### IV. Alcance

Este convenio, una vez firmado, estará en vigor hasta el 8 de marzo de 2003, y podrá ser prorrogado mediante acuerdo entre las partes.

#### V. Naturaleza

El presente contrato es de naturaleza comercial y será ejecutado según las cláusulas en él contenidas. Los aspectos no previstos en las cláusulas se regirán por el Código de Comercio, por normas específicas tales como la Ley General de Publicidad del 11 de noviembre de 1998 y por los usos comerciales.

Y como prueba de su conformidad, las dos partes firman este Acuerdo de Patrocinio, por duplicado y con efecto único, en el lugar y fecha indicados en la cabecera.



Jean Haritschelhar  
Presidente Euskaltzaindia



Jose Antonio Ardanza  
Presidente Fundación Euskaltel



## **EUSKALTEL ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA ETA EBSREN AURKEZPENA**

*Zamudio, 2002-III-8*

*Jose Antonio Ardanza,  
Euskaltel-eko Presidentea*

Egun on denoi, eta lehenengo eskertu etorri hona etorri zaretelako. Gaur hemen egiten gagozan gauza da *Hitzarmena* sinatzea, Euskaltzaindia eta *Euskaltelen* artean. *Hitzarmen* horretan, gero ikusiko dituzue, babesten dira *Euskaltelen* aldetik, Euskaltzaindiaren eta UZEIren tartean egindako proiektu batzuk eta programa batzuk, eta gu bakar-bakarrik babesle ekonomikoak gara, laguntzak ematen ditugu, hau aurrera eramateko. *Euskaltel* zergatik sartu zan proiektu honetan edo zergatik ikusi zuen gai hau benetan interesgarria zela. Dakizuen bezala, *Euskaltelek* aspalditik erabaki du bere bokazioa eta bere nahia, kultura alor guztia bere eskuetan dagoen neurrian babesteko, laguntzeko. Euskaltzaindiaren programa agertu zen hemen nire despatxoan orain dela urtebete eskas, proiektu birekin, JAGONET alde batetik eta XX. mendearen corpusarena, bestetik. Orduan, guretzat interesgarria zen hori egitea eta guk hartu genduen ia erabakia laguntzeko eta babesteko. Hortik aurrera gauzak egiten joan dira, gauza oso teknikoa da eta hor amaitzen da gure eginkizuna eta gure lana. Nik bakar-bakarrik azpimarratu, ahal dan neurrian pentsatzen dudala, ez *Euskalteleko* presidente bezala, baita ere euskaldun bezala, interesgarria dela. Eman zaizkizuen orri batzuetan ikusi ahal izango duzue benetan zer garrantzi duen hemen gaur egin nahi danak. Eta nire ongietorri hitzak esan ondoren, Jean Haritschelharri ematen diot hitza, Euskaltzaindiko presidente bezala.

\* \* \*

En este acto hemos procedido a la firma de un *Convenio* de colaboración entre Euskaltzaindia y *Euskaltel*, *Euskaltel* y Euskaltzaindia, mediante el cual lo que hace *Euskaltel* es patrocinar básicamente dos proyectos, dos ideas que desde hace tiempo se venían trabajando. Una es JAGONET y la otra es el primer corpus estadístico del euskera del siglo XX, trabajo éste que venía realizando UZEI desde el año 1987. *Euskaltel* entra en este proceso a partir de una visita que me realizan en estas mismas dependencias representantes de Eus-

kaltzaindia, hace ahora un año. Entonces tuve la impresión de que los proyectos que se planteaban eran realmente proyectos importantes, de una gran trascendencia. Era el incorporar a nuestra lengua procedimientos tecnológicos modernos, que otras lenguas ya vienen utilizando. Entonces en *Euskaltel* se decidió dar este apoyo, dar esta cobertura, el tiempo ha ido pasando, no porque estaban pendientes las decisiones, sino porque la realización material del trabajo, de lo que luego Uds. van a tener posibilidad de ver en esa demostración que se va a hacer, realmente ha requerido su tiempo. En estos momentos se ha culminado este trabajo, se ha culminado este esfuerzo y por lo tanto procedemos ya a la firma. Lo importante en este acto no es que esté *Euskaltel* subvencionando este proyecto; lo importante es lo que contiene esto realmente, los contenidos de estos dos proyectos: JAGONET y el corpus del euskera del siglo XX. Para ello creo que nadie mejor que el propio Haritschelhar, como presidente de Euskaltzaindia, para que les dé una información breve de lo que esto supone y luego ya, digamos, los padres de la criatura, serán los que explicarán con más detenimiento, lo que es JAGONET y lo que es propiamente ese corpus del euskera.

## EUSKALTEL ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA ETA EEBS-REN AURKEZPENA

*Zamudio 2002/3/8*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Lehendakari jauna.  
Kazetari andere eta jaunak.  
Eguerdion.

Nola ez eskertu Euskaltel-ek egiten duena. Aspaldi honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakari zinelarik Euskaltzaindiak harreman onak ukan ditu zurekin. Hortakotz Lehendakari jauna deitzen zaitut beti, enetzat lehendakari izan direnak lehendakari direla beren bizi guzian. Geroztik laguntzen duzu Euskaltzaindia sor dezan bere fundazioa eta egiten duzun lana zinez eskertzekoa da.

Gaur, Euskaltel-eko zuzendari bezala agurtzen zaitut orain gehiago, sinatu dugun hitzarmena urrats bat gehiago delakotz euskararen bide luzean. Euskaltel-i esker gaurkotzen dugu gure hizkuntza zaharra eskaintzen dizkiogula teknologiaren aldetik diren aurrerapen guztiak. Hala Euskaltzaindiak bildua duen euskararen Corpus idatzia edozein ikerleren eskuetan jartzen da, ez bakarrik mende iraganetakoa baina ere UZEI-ri esker XX. mendeko euskara.

Horiek hola, Euskaltzaindiak XX. mendeko azken laurdenean egiten du bertze Akademiek egiten ari direnak, Real Academia de la lengua española-k, Institut d'Estudis catalans-ek, Real Academia gallega-k eta Frantzia ere «Le Trésor de la langue française» delakoarekin, bakoitzak biltzen dituela dauzkan hitzak, altxor paregabea, zientifikoki aztertu behar dena.

Diodalarik edozein ikerlek beregana dezakela aipatu dudan Corpora, erran nahi dut ez dagoela mugarik, Ameriketarik edo berdin Japoniatik harremanetan sar baidaitelakotz eta zinez obratzen dugu orain Eiheralarreko erretoraren ametsa idazten zuelarik *Kontrapas* delakoan: «Heuskara, jalgi hadi mundura», «Heuskara habil mundu guzira». Bai, euskara zabaltzen ari da mundu guzian Internet-en bidez.

Hor daukagu ere *Jagonet*, Euskaltzaindiak sortu duen tresna baliagarria. Edozein euskaldunek galda dezake behar duen argibidea izan dadin hiztegian edo gramatikan. Hartuko du erantzuna batzuetan berehala daukan datu-baseari esker, eta bertze batzuetan berantago, Euskaltzaindiak hartuko duelarik doakon erabakia. Argibide zerbitzu bat da *Jagonet* euskaldunentzat eta euskalduntzen ari direnentzat egina. Hau ere aurrerapen bat da.

Denek ikus dezakete euskara sartzen dela gaurkotasunean eta mundu guzira igor dezakela bere mezua : bizi dela oraindik, bizi nahi duela bertze hizkuntzak bezala, ez dela bere zokoan egoiten batzuk uste duten edo nahi luketen bezala, teknologia berriak eta azkenik sortuak baliatzen dituela bere garapenerako eta zabalkunderako.

Berriz ere eskerrak, zuri Lehendakari jauna eta Euskaltel enpresari.

\* \* \*

Quiero, brevemente, marcar el agradecimiento que tengo hacia el señor Ardanza, hacia su persona como Lehendakari y el trato que ha tenido con Euskaltzaindia en los años de su presidencia. No olvido tampoco lo que está haciendo para la creación de la fundación pro Euskaltzaindia, pero hoy me complazco en saludar al presidente de Euskaltel con quien acabo de firmar un convenio de mucha importancia.

Gracias a este convenio el Corpus del euskara escrito realizado por Euskaltzaindia y el del euskara del siglo XX realizado por UZEI, con quien trabajamos desde hace unos quince años, está puesto a la disposición de cualquier estudioso en cualquier lugar que se encuentre en el mundo entero.

Así a través de Internet y de los medios de comunicación más modernos el euskara, una de las lenguas más antiguas de la Europa Occidental, lengua prelatina, entra en la modernidad y se cumple el sueño del primer escritor en lengua vasca que, en 1545, en su poema titulado *Kontrapas*, lanzaba el grito: ¡heuskara, sal al mundo, sal al mundo entero!

De la misma manera hacemos la presentación de *Jagonet* que Euskaltel ayuda también, verdadero servicio de información puesto a la disposición de los vascos-parlantes y de los que estudian el euskara. Para mejores explicaciones doy la palabra a José Luis Lizundia, reiterando al Señor Ardanza y a la empresa Euskaltel el agradecimiento de Euskaltzaindia.

# **EUSKALTEL ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA ETA XX. MENDEKO EUSKARAREN CORPUSAREN AURKEZPENA**

*Zamudio, 2002-III-08*

*Alberto Agirreazaldeg  
UZEIko kudeatzailea*

Nire aurrekoek esandakoak entzun eta gero, zaila da hemen gauza berriak esatea. Nik labur hitz egingo dut, gero aurkezpen tekniko egiteko beta izan dezagun.

Azken mende osoko euskara idatziaren erabileraren eta eboluzioaren isla da gaur aurkezten dugun hau. XX. mendean euskaraz argitaratu diren testuak Internet bidez ikus daitezke. Baina ez dira testu soilak bakarrik ikusten. Euskaraz idatzi den corpusa kontsultatzeko aplikazio informatiko aurreratu bat prestatu da eta internetez egin daiteke gainera kontsulta hori.

Beraz, XX. Mendeko euskal corpusa, edonork kontsulta dezake orain, internet bidez, webgune honetan: [www.euskaracorpora.net](http://www.euskaracorpora.net)

## **Proiektu handia eta luzea**

EEBS (Eguno euskararen bilketa-lan sistematikoa) izenarekin jarri genuen martxan proiektu hau, 1987an, Euskaltzaindiaren eskariz. Helburu zehatz batekin sortutako corpus baten aurrean gaude, beraz, hain zuzen ere biharko Hiztegi Hiritar Arauemailea izango denaren oinarritzko material gisa sortu baitzen.

Beraz, urretik esan den bezala, orain dela 15 urte, UZEIk akordio bat sinatu zuen Euskaltzaindiarekin eta Herri-Agintekin proiektu honetan hasteko. Orditik 7-8 laguneko lantaldea aritu da lanean eta, beraz, gaur aurkezten den proiektua ez da atzokoa, azken 15 urtetan egindakoa baizik.

Gaur egun corpusen garrantzia gero eta handiagoa da hizkuntza guztietan eta corpus erraldoiak dira gainera. Ezagunak dira RAEren CREA (Corpus de Referencia del Español Actual), IECen CTILC (CORPUS Textual Infor-

matizat de la Llengua Catalana) edo galegoen CORGA (Corpus de Referencia del Galego Actual) gure inguruko hizkuntzetakoak aipatzeagatik.

Euskaldunok ere, hauen parean, euskararen erreferentzi corpus erraldoia beharko genuke, oraingo hau corpus estatistikoa baita.

### **Ezaugarriak**

- Sarean kontsultagai dagoen lehen corpora.
- Sailkatua: garaia, euskalkia eta generoa.
- Ia 5.000.000 testu-hitzekoa.
- Lematizatua: aldaera guztiak forma estandarrean batuak bilaketa errazteko.
- 100.000 lema desberdin: sarrera arruntak + hitz anitzelko unitate lexikalak (hitz elkartuak, eratorriak, esapideak...).
- Estatistikoa: obra zati asko euskal argitalpenen inbentarioan oinarritua.
- SGML (Standard Generalized Mark-up Language) formatu estandarrean kodetua.
- Autoreak eta izenburuak ere, ematen dira.

### **Baliabide informatikoak**

- Oracle datu-basea.
- Kontsultarako Intermedia erabiltzen da.
- Programaziorako Java erabili da.
- Aplikazio mota: Servlets

### **Erreferentzi corpusaren beharraz**

Euskaltzaindiak aspaldi egin zuen corpusaren aldeko apustua: tradizioa jasotzen duen *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren oinarrizko obrak alde batetik, eta XX. Mendeko euskara biltzen duen *EEBS* bestetik. Hain zuzen lan hauetan oinarritu dira *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua* besteak beste.

Lehen esan bezala, euskararen erreferentzia corpus erraldoia beharko genuke osatu lehenbailehen. Inguruko hizkuntzek horrela egin dutelako, testu



osoak biltzeko erraztasunak gero eta handiagoak direlako, euskarri informatiboan eskura daitezkeelako eta informazio zabalena edukitzeak lan tresna fidagarriagoa egiten dutelako.

Bestalde, Euskaltzaindia mintzatu da corpusaren beharraz –ikus XV. Biltzarreko ondorioak– eta aitortua dio UZEIri gai honetan duen eskarmentua. Hau guztia kontuan hartuta, corpus erraldoia osatzeko irizpideak aztertzen duen proiektua prestatzea da aurtengo UZEIren egitasmoetako bat eta UZEIk aurkeztuko dio proiektua Euskaltzaindiari, honek aurten gogoeta egin dezan. Nolanahi ere, Euskaltzaindiak badaki UZEI prest daukala proiektu honetan lankide izateko eta hemendik bertatik eskerrak ematen diot Euskaltzaindiari guri eman digun konfidantzagatik eta gure lankidetzak eskaintzen diot behar duen guztirako.

Bukatzeko, UZEIk begi honez ikusten du Euskaltzaindiaren eta Euskaltel-en arteko *Hitzarmena*. Lehenago ere UZEI eta Euskaltelen lankidetzari esker Canal 21 Interneteko ataria sortu zuenean UZEIren Euskalterm datu bankua eskaini zuen, orain Eusko Jaurlaritzaren Euskadi.net-etik eskaintzen bada ere. Gero, corpora eskaintzeko ere lehen harremanak izan genituen, Jose Antonio Ardanzarekin eta harreman hura gaur hemen sendotua atera da. Eta Euskalteli esan nahi diot ez dela damutuko. Estatu mailan hizkuntzaren inguruko proiektu erraldoiak babesten diarduela Telefonica ere, RAEkin egindako hitzarmenei esker, eta Euskal Herrian, bide bera jarraituz, Euskaltzaindiari eta euskararen inguruan sortzen ari diren proiektu erraldoiei aurre egiten lagunduz prestigio handia ematen diola hizkuntzari eta berak ere gizartearen aitormen zabalala lortzen duela. Eskerrak beraz biei ekimen zabal hau bultzatu dutelako.

Orain, Miriam Urkiak, proiektuaren arduradunak, ordenadore bidez Kontsultaren nondik norakoak azalduko dizkigu eta, ondoren, Jose Ramon Zubimendik Jagonet-en aurkezpena egingo du.